

EBALUAZIO HEZITZAILEA ETA HEZIGARRIA

2021-02-18



ZER-NOLAKO EBALUAZIORANTZ JO NAHI DUGU?

Ikaskuntza gisa ikusitako ebaluazioa

diseinu didaktikoak ikasleak bere ekoizpenak aztertu eta bere burua autorregulatzea sustatzen du (baita bere burua kualifikatzea ere).

➔ **Kalifikazioan zentratu beharrean, ikaskuntzara bideratzea**



GAURKO SAIOAN:


→ Ebaluazio hezitzailearen inguruko esperientziak:

- “Ikas-egunerokoa” - J. Alkiza eta M. Mujika. Sto Tomas Lizeoa BH

- “Ikasteko ebaluatzen” - N. Otsoa. Arrankudiagako Eskola LH

→ Ebaluazio hezigarrirako tresna batzuk

→ Hemendik aurrera zer?



1. ESPERIENTZIA

“Ikas-egunerokoa” - Bigarren Hezkuntza



2. ESPERIENTZIA

“Ikasteko ebaluatzen” - Lehen Hezkuntza



EBALUATZEA prozesu bat da, eta berekin dakar:

1. Datuak biltzea

Lanak, galderak, argazkiak, bideoak, pentsamendu mapak, behaketak, portafolioa...-en bidez

2. Analizatzea

Hautematen diren zailtasunen arrazoiak "ulertzea" bilatuz, irizpide taulak eta errubrikak erabiliz...

3. Erabakiak hartzea

Pedagogikoak

Irakas-ikas prozesua erregulatzeko feedbacka eman, jaso eta aplikatu -feedforward-

Sozialak

Sailkatzeko, hautatzeko, orientatzeko...

Erabakiak irakasleak hartzen dituzten

Erabakiak ikasleak hartzen dituzten

EBALUAZIO HEZIGARRIA

EBALUAZIO HEZITZAILEA

KALIFIKAZIOA AKREDITAZIOA

DATUAK BILTZEA, DOKUMENTATZEA...

KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO MARKOAN

Ikasleen **pentsamendua**,
egiteko, **sentitzeko** eta
hitz egiteko moduak
jasotzen dituztenak.

Aurrera joaten
laguntzen duten
datuak, behin eta
berriro **begiratzeko**
aukera ematen
dutenak, **iturri**
anitzekoak...

Egoera errealetara
eta **ekintzara**
bideratutako
pentsamendu
konplexua
jasotzen duten
datuak.

NOLAKO
DATUAK?

DATUAK BILTZEA, DOKUMENTATZEA....

Ikasleen lanak, ahots-grabazioak, eskemak eta mapa anitzak... pentsamendua azaltzeko jasotzen diren datuak.

[Ikasleek dakitena erakusteko sortu-erabili ditzaketen 100 gauza \(Teachtought\)](#)

[53 modu ulermena egiaztatzeko \(Edutopia\)](#)



DATUAK BILTZEKO TRESNAK

→ Galdetegiak:

Galderen ezaugarriak: testuinguruan kokatuta, emankorrak eta konplexuak.

- Auto-, ko- eta heteroebaluazioa
- Gogoeta atazan zehar
- KPSI (Knowledge and Prior Study Inventory)



DATUAK BILTZEKO TRESNAK

→ **Komunikazio lanak:**

- **Ikas-egunerokoa:** landa-koadernoak, laborategiko koadernoak, blogak... [Haur txikiekin](#)
- **Ikas-karpeta edo Portfolioa:** [Bideoa](#), [digitala](#)
- **Beste adibide batzuk:**

Hitzaldiak eta aurkezpenak: [Ahozko aurkezpena](#)

Irudiak, argazkiak, bideoak

Maketak, infografiak, posterrak, lapbook-ak

Narrazioak, istorioak, kontakizunak...: [Idazlana](#)

Lan monografikoak



DATUAK BILTZEKO TRESNAK

→ Antolatzaile grafikoak:

- Orientazio oinarriak: Laborategiko txostena
- Mapak, eskemak, denbora lerroak...
- Diagramak eta dianak
- **Pentsamendu bisuala:** pentsamendu errutinak (KSI, 3-2-1 Zubia, hitza-ideia-esaldia), feedbackaren eskailera, izarra eta eskailera

DATUEN ANALISIA EGITEA

ZERTAN DATZA?

Datuak begiratzea, ondo egindakoa eta zailtasunak antzematea, eta horiek guztiak azaltzeko **arrazoi posibleak** ikustea.

Ikasleekin ebaluazio irizpideak eztabaidatzea eta adostea eskatzen du, gainditu beharreko **oztopoen arrazoiak** ezagutzen lagunduko dutenak.


Irizpide-zerrendak, errubrikak: Ikasleek bere lanak aurretik ulertu eta barneratu dituzten **irizpideekin aztertzea.**

Oso ondo etortzen da da beste pertsona baten lanak aztertzea, gurearekin alderatzeko... Besteen lanak azterretzerakoan akatsak **errezago ikusten omen ditugu eta...**

Akatsen arrazoiak ulertzen dituenean, ikaslea ez omen da desanimatzen, batez ere **gainditu ditzakela ikusten badu.** Ikasten ari denaren sentsazioa areagotzen delako, motibazioa handituz.

Hori bai, **gelako giro baikorra ezinbestekoa da**, akatsak ikasteko beharrezkoa diren zerbait bezala bizituz, elkarlaguntzaz, aurrera joateko gogoz...

DATUEN ANALISIA EGITEKO TRESNAK

- **Helburuak:** Helburuak adosteko jarduera
 - **Ebaluazio irizpideak:** Adosteko jarduera
 - **Kontrol zerrendak:** Orientazio oinarria
 - **Errubrikak:** CEDEC-INTEF , ikerketa esperimentalaren errubrika
 - **Ebaluazio hitzarmenak:** Kontratu didaktikoa
- 

ERABAKIAK HARTZEA I

ZEIN ERABAKI HARTU?

NOLA ERREGULATU IKUSI DIREN
ZAILTASUNAK?



Iturria: Dreamstime

Ikasleen zailtasunen arazoak **irakasleak** ulertzen dituzenean, bere jarduna autoerregulatzen du:

- ikas-iraskuntzarako prozesua errebisatuz,
- beste jarduera batzuk proposatu behar dituen erabakiz,
- adibideak jarri behar dituen pentsatuz,
- beste hainbat alderditan begirada edo jardunaren fokoa jarri behar duen ikusiz...

ERABAKIAK HARTZEA II

IRAKASLEAK

Irakasleek 100 erabaki inguru hartzen omen dituzte egunero gelan...: datuen analisia oso azkar egiten da eta **erabakien ondorioak behin eta berriro lantzen dira.**



IKASLEAK

Ikasleak ere gelan sartu orduko ebaluatzen du: irakaslearen hitz egiteko modua, bere keinuak, ikaskideak berarekin nola harremantzen diren..., eta horren arabera **erabakitzen du** jardueretan nola parte hartuko duen.

Irakasleak egiten dizkion lehen proposamenak kontuan hartuz ikasteko gai izango den baloratuko du, noraino interesgarria izango den baloratuko du eta saiatuko den **erabakiko du.**

ERABAKIAK HARTZEA III

DENBORAK

Zergatik **estresatzen** gaitu ebaluazioak? Emaitzak baloratzen ditugunean, ez direlako espero bezain onak.

Denbora **gutxi ematen omen** diegu ikasleei zeregina ondo ulertu dezaten, beren zailtasunak identifikatu ditzaten, ondo ez egitearen zergatia ulertu eta bere erabakiak har ditzaten...

Jardueren diseinua eta azalpenak prestatzeari, **ikas zailtasunen zergatiaren analisiari** baino denbora gehiago ematen omen diegu.

Baita gelako antolaketari edo aldaketa metodologikoei eskaintzen diegun **denbora baino geniago**.

ERABAKIAK HARTZEKO TRESNAK

- Feedbacka eta Feedforward: Planifikazioa
- Erregulaziorako: Hobetzeko proposamenak,
- Espazioen antolaketa: kontsulta txokoa, laguntza ordua...
- Akatsen ikuskera, gelako giroa, prebentzioa, hizkuntza egokia (feedback positiboa), berdinen arteko feedbacka, forward-a...

PORTFOLIOA edo IKAS-KARPETA erabakiak hartzeko tresna ezin hobea da.

Tresna digitalak

Google inprimakiak

Kahoot

Padlet

Canvas

Genially

Piktochart


Quizlet

Socrative

....



Eskuz ere...



KONPARATU eta KONTRASTATU.

1. IDEIA: *LEXEJITIO 1490*

2. IDEIA: *LEXEJITIO 1490*

Zerlan dira berdinarak?

Zerlan dira desberdinarak?

ZEREN ARABERA?

Berdinarak eta desberdinarak eraguzatzen dira.

ONDORIOA:



Bihotz Gozteia Ikastola, 3. maila

robotika proiektua ebaluazio diena

TAIDE-JANEA:

1. Robot eta kargak ondo garatu dira
2. Ekarriak ondo garatu dira
3. Ez da arazo berezirik izan

PROIEKTUAREN CANVAS-A:

1. Ahal gutxiak zehaztasunez osatu dira
2. 3D zirkuituak marraztu eta akotatu dira
3. Semaforearen bistak marraztu eta akotatu dira

SOPHOMA:

1. Material desberdinak erabili dira
2. Koloretan dago eta kolorek ondo sakertu dira
3. Eskaltan ez diren gauzak sartu dira berriztatuz

PROIEKTUAREN BISTAK ZIRKUITUA:

1. MIRA programatu ondo egin da
2. Irakurketa modu egokian ikasitua da (idazte/entzutenaz)
3. Semaforearen sentsua egokia da

PROIEKTUAREN ERAGUNTZA:

1. 2 semaforok erabili dira eta zutik mantentzen dira
2. Arazo-egoria ondo adierazita dago (irakurketa)
3. Robotaren ondo konexioa dago (irakurketa)

TALDE-IZEREA:

REGULACIÓN	Albaki	Albaki	Albaki
English	For the identification of a product or service of a certain quality...	Controlar la composición química...	Controlar un nivel concreto de la calidad de un material...
Mi esposa es muy bonita	En un contexto positivo...	CO ₂ + H ₂ O → C ₆ H ₁₂ O ₆ + O ₂	Al agua
¿Que he hecho mal?	bien	CO ₂ + H ₂ O → C ₆ H ₁₂ O ₆ + O ₂	No es el agua, es el CO ₂
¿Por qué he hecho mal?			
¿Que otro lenguaje?	bien		
¿Que le han enseñado a la clase?			

HAU GUZTIA IKASIKO DUGU:

INGURUMENA

- ORIENTAZIOA zer den.
- PUNTU KARDINALAK zer diren eta zerakoa emaitzen diren.
- PARADIGMA zer den eta nola erabiltzen den.
- HAIZE-ORANTZA erakitzten.
- EGUZKI-ERDIA erakitzten.
- EGUZKIA eta ERDIAZIKERAK erakitzten.

HIZKUNTZA

-(ANDE)-

- Kalea buruko ematen
- Julek egitea hizkuntza: "Haria dagan JULU BURU DUGU"
- (ORTOGRAFIA)
- Puntuazio-markak: PUNTUO, BARRA eta KOMA
- (DATRIA)
- DEFINIZIOA egiten
- EGONERAKA idazten
- (HIZKUNTZA HONETAN)
- Hotsak: BAIT / BAIT / BAIT / BAIT
- (HIZTEGIA)
- HITS ERKURTZEK zer diren.

Ikastola - 3. maila



Irizpideak

INSTRUKZIO TESTUA

- Izenburua jarri dut.
- Pleiguntza egin dut.
- Garbira pasa dut.
- Osagirik ondo materialak jarri ditut.
- Eman behar diren urratsak (zenbakiekin) idatzi ditut.
- Denbora antolatzailerak erabili ditut.
- Argazkiak/marrazkiak jarri ditut.
- Agintara aditaz erabili ditut.
- Errepasoa egin dut.
- +ortografia
- +puntuazio marketan
- +idazteko arauetan.

San Bizente Ikastola

LAN-PRAKTIKOA (aukeran)

-Gelan egindako praktika txiki baten azalpena orri batean (tresna baten erabilera, adibidez); ahal baduzu erantsi ikasleren baten ekoizpena.


Epea: otsailaren 25etik - martxoaren 11ra

Bidali: marisoluria@donosgune.eus edo mjesusausin@donosgune.eus



HEMENDIK AURRERA ZER?

- Zein baldintza ikusten ditut nere ikastetxean datorren ikasturtean Ebaluazio Hezigarriaren gaia lantzeko?
 - Irakasle talde interesatu bat
 - Zuzendaritzaren onespena eta babesa
 - Talde koordinatzailea/gidaria
 - Uneak eta guneak
 - Informazio, komunikazio eta edukietarako eremua
 - Gelako praktika eta teoria uztartzeko asmoa

 - Baldintza hauek sortzeko bidea egin daiteke ikastetxean?
- 

HEMENDIK AURRERA ZER? II

Ebaluazio hezigarriaren bidean, egitekoak: (Aukeran...)

- Datuak biltzeko eta dokumentatzeko asmoa ➡ tresnen erabilera
- Datuen analisirako asmoa ➡ tresnen erabilera
- Erabakiak hartzeko prozesuak ➡ tresnen erabilera
- Gelako praktiken dokumentazioa
- Talde komunikazioa

Kanpoko laguntza:

- BGarekin lanean: talde eragileak (prestakuntza plana egin /jarraipena); prestakuntza saioak (azalpenak, lan proposamenak, praktiken analisia...)

ERREFERENTZIAK

Argia: [Ebaluazio hezitzailea teoriatik praktikara eta maila guztietan](#)

Teachtought: [100 Things Students Can Create To Demonstrate What They Know](#)

Aula: [Comunicación de la evaluación usando el portafolio](#)

Xarxa de Competences basiques(Gencat): [Avaluar és aprendre Neus Sanmarti 2020](#)

Edutopia: [53 ways to check for understanding](#) ; [5 ways to conduct formative assesment](#)

[7 ways to do formative assessments in your virtual classroom,](#)

[8 quick formative assessment strategies to check for understanding,](#) [How to spend less time grading,](#)

[8 ways to reduce students cheating ,](#) [Formative assessment in distance learning](#)



ESKERRIK ASKO

Marisol, Mariaje eta Sagra

Donostiako Berritzegunea

